

**EUSKAL
HERRIKO
ERLE BELTZA**





EUSKAL-HERRIKO ERLE BELTZA



HISTORIKOA

Erle beltz basaren hedapen eremuak Frantzia estaltzen du eta orokorkiago Europa mendebaldean, Espainiatik Norvegiara. Erle populazio basa ingurumenaren lekuko berezitasunei eta beharrei egokitzeko gai da, « ekotipo » deituriko erle multzoak osatuz.

Hala nola, Euskal-Herrian erle beltzaren ekotipo berezi bat bada, berdin Landesetan, benetako lekuko barietateak, azkarrak eta eko-egokituak. Jendeak baliatzen ditu duela mendeak erle beltzen lekuko populazioak, ezti ekoizpenerako, basak diren kolonietan edo etxeetako erlauntzetan. Errola garrantzitsu bat ere betetzen dute landarediaren eta laborantzako lurren polinizazioan.

DESKRIBAPEN MORFOLOGIKOA

Erle beltza (*Apis mellifera mellifera*) europear erle domestikoaren azpi-espezia da. Gorputza osoki iluna du. Haatik batzutan agertzen dira tatxa beltz batzuk sabelaren gainean. Bestalde, sabelaren puntan kokatutako laugarren ile lerroa (tomentum) biziki hertsia da.

POPULAZIOA

Orokorrean, erleek mehatxu eta eraso anitz jasaiten dute produktu fitosanitarioengatik, populazioaren erortze inportantea eraginez. Bestalde, lekuko erle beltzak biziki mehatxatuak dira ere aloktono deitutako atzerriko erleen inportatze handiarengatik. Gaur egun, erle basa eta domestikoen parte handi bat Frantzian genetikoki gurutzatua da atzerriko erle arrazekin. Euskal Erle Beltza elkarte ari da Euskal-Herriko erle beltzaren kontserbatzeko. Erle beltzaren lekuko berezitasunaren begiratzeko eta garatzeko inizatiba konkrituak burutzen ditu. Akitaniako Arrazen Kontserbatorioaren lankidetzarekin, identifikatzen ditu eta babesten ditu koloniak, lore, sagardi eta laborantza lurren polinizazioarentzat baitezpadakoa den lekuko barietate hau zaintzeko.